# Ari gara 3

**Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Bigarren maila**
**(1 - 3 gaiak)**

## Irakaslearen liburua



# Ari gara

## Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Bigarren maila

Pello Mateos Yeste, Garbiñe Urreizti Lezertua

**Nafarroako Gobernua**
Hezkuntza eta Kultura
Departamentua

| | |
|---|---|
| Argitalpena: | Nafarroako Gobernua<br>Hezkuntza eta Kultura Departamentua<br>Euskara Zerbitzua |
| Egileak: | Pello Mateos Yeste eta<br>Garbiñe Urreizti Lezertua |
| Marrazkiak: | Regina Salcedo Irurzun |
| Diseinua: | RBK, Diseinu eta Komunikazioa |
| Imprimaketa: | Ulzama Digital |

# Ari gara

Iaz, EOIDNA-ko Euskara Departamentua abian jarri zenean, gure ikastetxe kolaboratzaileei ohikoa (maila bakoitzaren kurrikulua, ebaluazio irizpideak eta azterketak) eskaintzeaz gainera argi ikusi genuen Bigarren Hezkuntzako irakasleei zertxobait gehiago eskaini behar zitzaiela: guk proposatutako kurrikulua ikasgeletan aurrera eramaten lagunduko zion ikasmaterial xorta xume bat, alegia.

Ikasmaterial hau sortzera bultzatu gintuen arrazoia kurrikuluaren beraren izaeran aurkitu behar dugu. Izan ere, EOIDNA-ko A ereduko 1.mailari zegokion kurrikulua prestatzerako orduan, HABE-k plazaratu zuena hartu genuen oinarritzat. HABE-ko kurrikuluak zerbait ona badu, eta alderdi on asko ditu, ikaslea komunikazio eraginkor eta praktikora bultzatzeko asmoa da. Horixe nahi genuen, ohiko irakasbide memoristiko eta gramatikal horretatik aldenduta, Bigarren Hezkuntzako A ereduko gure ikasleei komunikaziorako bide ematea.

*Ari gara* materialaren helburua ikasgelan lau trebetasunak lantzea da. Lau trebetasunetatik mintzamena izan da orain arte gelan lantzeko aukerarik izan ez duena, ohitura falta batetik, eta gelako ikasle kopurua bestetik, izan dira gure ustez trebetasun hau ez lantzearen arrazoi nagusiak. Guk eskaini dizuegun materialean, beraz, beste trebetasunen artean mintzamenari ere lekutxo bat egitea proposatu dizuegu.

Nozio komunikatiboa oinarri delarik, esaldiak egituratu ahal izateko errekurtso gramatikalak gelako irakasleak zabaldu beharko ditu, betiere material osagarria baita guk sortu duguna. Gure liburu honetan ez dira betiko eta beharrezkoak diren azalpen gramatikalak aurkituko, gure programazioan mailaka definituak agertzen direnak, hauek gelako irakasleak inork baino hobeto azalduko dituela uste dugu.

*Ari gara* ikasmateriala bi zatitan aurkeztu nahi izan dugu: irakaslearen liburua eta ikasleena. Lehenengoan irakasleek baliagarriak izan dakizkiekeen informazioak aurkituko dituzte, hala nola jarduera bakoitzaren euskarriak (testu-mota, kontestuko ezaugarriak, adierazpide linguistikoak...), prozedura, soluzioak... Bigarrenean ikasleek egin beharko dituzten zeregin guztiak, modu erakargarrian aurkeztuak, biltzen dira.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi genizkieke Nafarroako Gobernuko Araubide Bereziko Irakaskuntzaren eta Teknologia Berrien Zerbitzuari eta bereziki Euskara Zerbitzuari, hauen laguntzarik gabe lantxo honek ez baitzuen argia ikusi izango. Era berean, gure eskerrik beroena Nafarroako Gobernuko Ikasliburu eta Materialen Unitate Teknikoari argitalpen prozesu tekniko guztia bere gain hartu duelako. Azkenik ez genituzke aipatu gabe utzi nahi izango iaz EOIDNA-ren proiektuan A ereduan aritu ziren irakasle guztiak, haien ekarpena balio handikoa izan baita. Horiei ere eskerrak.

*Egileak*

# Aurkibidea


1. Gizartea .......... 7

2. Garraiobideak eta komunikazioa .......... 23

3. Pertsona .......... 43

# 1
# Gizartea

## Ondo bizi nahian



1. Jarduera

# Bazen behin...



Irakurmena



Mintzamena

## Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Irakurmena.

- **Testua.** Deskribapena.

- **Kontestua.**
  - – Irakurketaren xedea: informazioa jasotzea.
  - – Igorle-hartzaile harremana: publikoa.
  - – Komunikazio-kanala: aldizkaria.
  - – Komunikazio-era: irakurgai erreala.
  - – Gaia: ikasleen mundu ezagutzatik hurbilekoa.
  - – Eginkizunak: jasotako informazioa ulertu eta ikaskideari kontatzea.

- **Adierazpide linguistikoa.**
  - – Adjetiboak: kualifikatiboak.
  - – Aditza.
    - • Denbora: orainaldia.
    - • Aspektua: ez burutua.
  - – Eremu semantikoari dagozkion sustantiboak.

## Prozedura

Ikasleak binaka jarri eta gero, bakoitzak dagokion zatia (A ikaslearena edo B ikaslearena) irakurriko du. Bukatutakoan, A-k B-ri pasadizoak zer diren azalduko dio eta B-k A-ri ipuinen berri emango dio.

**1.B** Jarduera

# Txikitako ipuinak



Mintzamena

## Edukiak

• **Hizkuntz trebetasuna.** Mintzamena.

• **Testua.** Narrazioa.

• **Kontestua.**
  – Komunikazioaren xedea: ezagutzen duen ipuin bat kontatzea.
  – Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa.
  – Komunikazio-era: transakzionala. Txandakako kontaketa.
  – Komunikazio-kanala: aurrez aurre (talde txikiaren aurrean).
  – Gaia: ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
  – Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.

• **Adierazpide linguistikoak.**
  – Alderdi fonologikoa:
    – /Z/ /S/ /X/bereiztea
    – /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
    – il>[ll]
    – in>[ñ]
    – Asimilazioak: ez naiz> [enaiz]
      ez dira> [eztira]
      ez ba >[ezpa]
  – Alderdi morfosintaktikoa:
    – Adjetiboak: lasai, aspergarri, triste, eder, interesgarri, erakargarri, zaratatsu, baketsu, on, gaizto...
    – Modu-adberbioak: gaizki, ondo, poliki, primeran...
    – Aditza: Indikatibo lehena
      Nor
      Nor-nork (nor 3.)
      Nor-nori (nor 3.)
      Aspektua: Burutua
    – Baiezko, ezezko eta galderazko perpausak
    – Perpaus elkartua eta menpeko esaldiak.
      • Emendiozkoa: eta, ere, gainera
      • Hautakaria: edo
      • Aurkaritzakoa: baina, hala ere
      • Kontzesiboak: nahiz eta
      • Ondoriozkoak: beraz, orduan
      • Konpletiboa: (e)la
      • Kausala: (e)lako
  – Elementu diskurtsiboak.
    • Elkarrekintza:
      – Sarrera: behin, behin batean, egun batean...
      – Erritmo-aldatzaileak: halako batean, orduan,..
      – Aldi-antolatzaileak: hurrengo batean,..

## Prozedura

Hirunakako taldeetan, ezagutzen duten ipuin bat kontatuko diote elkarri.
Bukatutakoan, talde txiki bakoitzak, atera diren ipuinak zein izan diren talde osoari aurkeztuko dio.

N

# Ipuinak kontatzen

NOZIOAK

## Helburuak

Ipuinen hasierak, jarraipenak eta bukaerak parekatuz, ipuinak kontatzeko erabiltzen diren formuletan arreta jartzea.

## Prozedura

Marrazkietako ipuinen izenak, hasierak, jarraipenak eta bukaerak parekatzea.

## Erantzuna

| Ipuinaren izena | Hasiera | Jarraipena | Bukaera |
|---|---|---|---|
| Loti Ederra | 5 | 2 | 3 |
| Txanogorritxo | 2 | 8 | 6 |
| Edurne Zuri | 6 | 5 | 1 |
| Hiru txerritxoak | 4 | 7 | 2 |
| Aladino eta kriseilu magikoa | 1 | 3 | 5 |
| Herriko gaztaina-saltzailea | 7 | 1 | 8 |
| Pinotxo | 8 | 6 | 4 |
| Deabruaren zubia | 3 | 4 | 7 |

**1.C**
**Jarduera**

# Betiko ipuin bat idatziko dugu?

Idazmena

## Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Idazmena.

- **Testua.** Narrazioa, kontakizuna: Esaldi mailako egitura soiletik parrafo-mailako egituretara abiatu zenbait lotura-forma erabiliz.

- **Kontestua.**
  - Idazketaren xedea: kontaketa.
  - Igorle-hartzaile harremana: ikasle-ikasle.
  - Komunikazio-kanala: eskuz bat-batean idatziak.
  - Erabilera-esparrua: akademikoa.
  - Gaia: ezaguna, mundu ezagutzatik hurbilekoa.

- **Adierazpide linguistikoa.**
  - Gertaeren egilea (NORK/NOR)
  - NORI zuzendua
  - NON, NOIZ gertatua
  - NOLA gertatua...
  - Lehenaldiko gertaerak: burutuak, ez-burutuak eta ez-burutu puntukariak.
  - Narrazioaren adierazleak:
    - Sarrera: behin, behin batean, egun batean...
    - Erritmo-aldatzaileak: halako batean, orduan,..
    - Aldi-antolatzaileak: hurrengo batean,..
  - Norbaiten esanak, usteak adierazteko zeharbidea: -(e)la
  - Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, aurretik

## Prozedura

Ikasleak, bakarka, ipuin bat gogoratu eta idatzi egingo du. Bukatutakoan, binaka jarri eta bakoitzak idatzitakoa ondokoari pasatuko dio. Ikasleak bestearen ipuina irakurri eta ipuinaren izenburua asmatu beharko du.

**2.**
**Jarduera**

# "Orain ere Pernando engainatu nahian"



Irakurmena



Mintzamena

## Edukiak

• **Hizkuntz trebetasuna.** Irakurmena.

• **Testua.** Narrazioa.

• **Kontestua.**
  – Irakurketaren xedea: informazioa jasotzea.
  – Igorle-hartzaile harremana: publikoa.
  – Komunikazio-kanala: liburua.
  – Komunikazio-era: irakurgai erreala.
  – Gaia: ikasleen mundu ezagutzatik hurbilekoa.
  – Eginkizunak: jasotako informazioaz baliatuz ipuina osatzea.

• **Adierazpide linguistikoa.**
  – Gertaeren egilea (NORK/NOR)
  – NORI zuzendua
  – NON, NOIZ gertatua
  – NOLA gertatua...
  – Lehenaldiko gertaerak: burutuak, ez-burutuak eta ez-burutu puntukariak.
  – Narrazioaren adierazleak.
    – Sarrera: behin, behin batean, egun batean...
    – Erritmo-aldatzaileak: halako batean, orduan

## Prozedura

Hirunaka jarrita, hirurek testua zatika irakurriko dute. Lehengo zatia irakurri eta gero, elkarri kontatuko diote. Lehenengo zatia ongi dago, ikasle bakoitzaren pasadizoarena da.

Gero, hirurek 2. zatiak irakurri eta ahal bezala elkarri kontatuko diote. Pasadizo hori norena den identifikatzen saiatuko dira. Segidan hirugarren zatiekin gauza bera egingo dute.

Bukatzeko, bakoitzaren pasadizoaren zatien ordena zein den asmatu beharko dute.

Ariketa honen helburua ez da dena ulertu eta kontatzea. Testua ulertzen izango dituzten zailtasunak kontuan hartuta, ikasleak, pistak eta bere errekurtsoak erabiliko ditu pasadizoa identifikatu ahal izateko.

Behin pasadizoa lortuta, irakurri eta ulertzen saiatuko da eta bere taldeari pasadizoaren mamia kontatuko dio.

**ERANTZUNAK**:

**“Pernandoren zorrak”** — Nork ditu beste zatiak, JARRAIPENA eta BUKAERA?

| | A | B | C |
|---|---|---|---|
| 1 | X | | |
| 2 | | | X |
| 3 | | X | |

**“Baratzeko ogia”** — Nork ditu beste zatiak, JARRAIPENA eta BUKAERA?

| | A | B | C |
|---|---|---|---|
| 1 | | X | |
| 2 | | | X |
| 3 | X | | |

**“Emaztearen heriotza”** — Nork ditu beste zatiak, JARRAIPENA eta BUKAERA?

| | A | B | C |
|---|---|---|---|
| 1 | | | X |
| 2 | X | | |
| 3 | | X | |

Hurrengo hauek dira ipuin osoak:

## “Pernadoren zorrak”

Pernandok zorrak omen zituen, eta ordaintzeko dirurik ez. Bere hartzaileak aspertu ziren itxoiten eta, horrela, bi gizon etorri ziren Pernandoren etxera, jeup! hots eginez.

Pernando atera zitzaien esanez:

— Zer gizonak?

— Hara bada —erantzun zioten besteek—, zure etxe gainean diru pixka bat badugula etaaa... huraxe jasotzera etorri gara.

— Nire etxe gainean dirua dagoela? —esan zien Pernandok—, hori jakin banu ez nintzen nabilen bezala ibiliko. Hartu jaunak eskailerak eta teilatura; han dagoen diru guztia zuentzat.

— Ez genuen hori esan nahi —esan zioten besteek—, zeraaa..., zuk guri dirua zor diguzula eta hura jasotzera etorri gara.

— Hori beste gauza bat da —erantzun zien Pernandok—, banengoen bada ni gure etxe gainean dirurik ote zegoen nik jakin gabe. Baina orain ez daukat nik dirurik eta beste egunen batean etorri beharko zarete.

Bi gizonak beren etxera joan ziren.

## “Baratzeko ogia”

Hurrengo goiz batean, Pernando ukuiluko lanak egiten ari zela, etorri ziren berriz bi gizonak. Pernandok ikusi zituen nola zetozen eta andreari esan zion:

— Hemen dira berriz ere lehengoko bi gizon haiek, eta gaur ere dirurik gabe gaude gu; zer edo zer asmatu beharko dugu. Ogirik ba al daukazu etxean?

— Bat edo bi bai —erantzun zion emazteak. Pernandok hartu zituen bi ogi, eta baratzako bazter batean sartu zituen lurpean.

Bi gizonak iritsi zirenean aurrekoan bezala hots egin zuten: —Jeup...!, gaur ere hemen gara, dirurik baduzun edo...

— Sartu behintzat sukalderaino —erantzun zien Pernandok—, ogi eta ardo pixka bat hartzeko, eta han hitz egingo dugu.

Haiek sukaldera joan ziren eta Pernando atera egin zen, eta aitzur bat bizkarrean zuela baratzara abiatu zen.

— Nora ote doa gizon hori? —esan zioten beste biek elkarri, eta bere ondoren abiatu ziren. Pernando baratzara iritsi zenean, hartu eskuetan aitzurra, eta aitzurtzen hasi zen. Berehala atera zuen ogi bat eta gero beste bat. Orduan, bi gizonek haiek entzuteko moduan esan zuen:

— Gaurko nahikoa izango dut; gehiago behar badut, etorriko naiz. Bi ogiak hartu eta etxera abiatu zen. Beste biak ikusi zituenean, harrituta bezala esan zien:

— Hemen al zineten bada zuek? Goazen etxeraino, ogi eta ardoa hartzera.

— Ikusi zaitugu ogiak lurretik ateratzen Pernando —erantzun zioten besteek—, ez daukagu guk ogi eta ardo beharrik, baina aitzur hori eman behar diguzu, gu ere inoiz ogirik gabe gelditu izan gara, errotariak ihes egin digula edo...

— Eta ni nola bizi zuei aitzur hau emanda? —esan zien Pernandok—,nik hau behar dut egunero ogia jateko.

— Begira Pernando —esan zioten besteek—, zor guztiak barkatuko dizkizugu aitzur hori ematen badiguzu.

— Zorigaiztoko zorrak! —erantzun zien Pernandok—, baina hala nahi baduzue, zuentzat aitzurra, eta ogia ez bada artoa edo taloa janez biziko gara!

Bi gizonak pozik joan ziren beren etxeetara, aitzurra bizkarrean zutela. Etxean esan zieten beren emazteei:

— Gaur ogirik ez hartu, e! Hemendik aurrera ez dugu ogi faltarik izango.

Bazkaltzeko ordua iritsi zenean, gizon haietako bat joan zen baratzara eta aitzurrean hasi zen jo eta ke, baina han ez zen ogirik ateratzen.

Horrela ari zela etorri zitzaion laguna esanez:

— Utzi niri orain aitzur hori, zuk honezkero nahikoa duzu eta... nik ere behar dut bazkaltzeko ogia.

— Aitzur honek ogi ateratzeko zain baldin bazaude, egon beharko duzu pixka batean –erantzun zion aitzurrean ari zenak, kopetako izerdia igurtziz—, sartu digu ederra Pernandok...!

Orduan konturatu ziren, Pernandok ogiak lehendik sartuak edukiko zituela.

## “Emaztearen heriotza”

Handik egun batzuetara berriz ere bi gizonak Pernandoren etxera badoaz elkarri esanez:

— Besterik ez bada ukuiluko behiak kenduko dizkiogu oraingoan. Pernandok ikusi zituen nola zetozen eta bere emazteari hots egin zion:

— Aizu, zatoz pixka batean. Betiko bi gizon horiek hemen datoz orain ere. Bete ezazu zahato txikia ardoz, eta jar ezazu golkoan. Hona iristen direnean, ni zurekin haserretuta banengo bezala hasiko naiz eta kutxiloa sartuko dizut golkoan. Zu lurrera eroriko zara, hilda bazeunde bezala. Gero nik txilibitua joko dizut belarri ondoan, eta jaiki egingo zara.

Bi gizonak iritsi ziren beti bezala jeup...! hots eginez. Pernando berehala atera zen:

— Zer dugu gizonak! —esanez.

— Zer dugun esaten diguzu? —erantzun zioten besteek haserre bizian—, nahiko barre egin duzu gure kontura, eta oraingoan besterik ez bada, ukuiluko behiak edo zer edo zer eraman gabe ez gara joango.

— Ez dago gaizki —erantzun zien Pernandok patxadan. Orduan Pernandok andreari deitu eta oso haserre esan zion:

— Ikusten duzu orain? Gizon hauek ukuiluko behiak eta ez dakit zer kenduko dizkigutela diote, izan ere zuregatik egin genituen zorrak guk! Orain ikusten duzu? Bertan hiltzea merezi duzu. Eta besterik gabe, hartu kutxiloa, eta emaztearen bularrean sartu zuen. Emazte gaixoa lurrera erori zen luze-luze odoletan...

Bi gizonak hau ikustean Pernandori heldu zioten esanez:

—Baina gizona, zer egin duzu? Zorrak dauzkazula eta, andrea hilko duzu bada orain? Guk behintzat...

—Ez ikaratu, gizonak! —erantzun zien Pernandok—, horrelakoak egiten ohituta nago ni lehenago eta. Gero atera poltsikoan zeukan txilibitua eta emaztearen belarri ondoan hasi zen: piiit... piiit... Andrea berehalaxe jaiki zen, ezer gertatu izan ez balitz bezala.

Bi gizonak harrituta eta ikaratuta gelditu ziren...

—Pernando —esan zioten azkenean—, orain artekoak zerbait ziren, baina hau... Txilibitu hori eman beharko diguzu, gu ere inoiz emazteekin haserretu izan gara.

—Txilibitu hau nik eman... ezta mundu guztiko diruarengatik ere! —erantzun zien Perrandok—, txilibitu hau izan ez banu, honezkero mila aldiz hila nuen nik nire andrea.

Baina bi gizonek hainbeste erregu egin zioten, emateko eta emateko, azkenean Pernandok andreari esan zion:

—Txilibitu hau ematera noa gizon hauei, hemendik aurrera bakean bizitzea besterik ez dugu...

Bi gizonak pozik joan ziren etxera txilibitua berekin zutela. Pernando eta bere emaztea etxean gelditu ziren. Andrea kezka pixka batekin.

—Ez al dituzte behintzat emazteak hilko! —esan zion Pernandori.

—Esnatuko ahal dira lehenago! —erantzun zion honek.

Laster izan zuten bi gizonek emazteekin haserretzeko motiboa. Batek kutxiloa hartu, eta hil zuen bere andrea, eta gero hildakoaren ondoan txilibitua jo eta jo hasi zen.... piiit.... piiit...

Horrela ari zela etorri zitzaion bestea:

— Utzi txilibitua, andrea hil dut eta...
— Zuk ere hil al duzu! —erantzun zion besteak—

Biek saio haundiak egin zituzten emazteen belarri ondoan txilibitua jotzen... baina dena alferrik. Emazteak ondo hilda gelditu ziren, eta bi gizonak alargun.

**3. Jarduera**

## Biluzik ala bainujantziarekin?



Irakurmena



Mintzamena

### Edukiak

• **Hizkuntz trebetasuna.** Mintzamena.

• **Testua.** Elkarrizketa.

• **Kontestua.**
– Komunikazioaren xedea: iritzia prestatu eta ondokoari azaltzea.
– Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa.
– Komunikazio-era: txanda laburreko elkarrizketak.
– Komunikazio-kanala: aurrez aurre (talde txikiaren aurrean).
– Komunikazio-egoera: informazio trukaketa.
– Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
– Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.

• **Adierazpide linguistikoak.**
– Alderdi fonologikoa:
  – /Z/ /S/ /X/ bereiztea
  – /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
  – il>[ll]
  – in>[ñ]
  – Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
  ez dira >[eztira]
  ez ba >[ezpa]
– Alderdi morfosintaktikoa: ikus 1.B. jarduerakoa.
– Elementu diskurtsiboak.
  – Interakzioan erabiltzen diren esamoldeak:
    • esandakoarekiko adostasuna azaltzeko: bai, hala da, bistan dago
    • ezadostasuna azaltzeko: ez dut uste, ez nago konforme
    • zalantza adierazteko: ez dakit, ez nago seguru
    • iritzia azaltzeko: oso ona/ondo
    • bete lana egiteko formulak: bueno, ah, zera, nola esan ba...

## Prozedura

Lehenengo ikasleak, bakarka, testua irakurri eta bere iritzia prestatuko du (gehiegi idatzi gabe eskematxoa presta dezake). Gero, hirunaka, bakoitzak bere iritzia emango du. Bukatutakoan, talde txikietako iritziak talde osora pasa daitezke.

## N. Haserreak

NOZIOAK

## Helburuak

Eman zaiena irakurriz, haserretzean erabiltzen diren adierazpideetako batzuk ezagutzea.

## Prozedura

Segidan jarriko den bideo zinta entzun-ikusi baino lehen ikasleei fitxa, irakurrarazi eta fitxan agertzen diren nozioak ikasten saiatuko dira.

## 4.A Jarduera — Goenkalen ere haserretzen dira



Entzumena

## Edukiak

• **Hizkuntz trebetasuna.** Entzumena.

• **Testua.** Telebistako telesaila.

• **Kontestua.**
- – Komunikazioaren xedea: informazioa jasotzea.
- – Komunikazio-era: interakziozkoa: ikaslearen ezagutza-mailara egokituz (ahoskera, zaratarik ez...).
- – Komunikazio-kanala: bitartekoak medio (telebista).
- – Gaia: ondoren eskatuko dena aurreikusteko modukoa.
- – Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- – Eginkizunak: erreportaia entzun-ulertu eta hutsuneak bete.

• **Adierazpide linguistikoak.**
- – Alderdi fonologikoa.
  - – /Z/ /S/ /X/ bereiztea

– /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
– il>[ll]
– in>[ñ]
– Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[eztira]

– Alderdi morfosintaktikoa.
– Adjetiboak: lasai, aspergarri, triste, eder, interesgarri, erakargarri, zaratatsu, baketsu, on, gaizto...
– Modu-adberbioak: gaizki, ondo poliki, primeran...
– Aditza: Indikatibo lehena
Nor
Nor-nork (nor 3.)
Nor-nori (nor 3.)
Aspektua: burutua
– Baiezko, ezezko eta galderazko perpausak
– Perpaus elkartua eta menpeko esaldiak.
• Emendiozkoa: eta, ere, gainera
• Hautakaria: edo
• Aurkaritzakoa: baina, hala ere
• Kontzesiboak: nahiz eta
• Ondoriozkoak: beraz, orduan
konpletiboa: (e)la
kausala: (e)lako

– Elementu diskurtsiboak.
• Ez hitzezko kodeak: irudiak, keinuak..

## Prozedura

Ikasleek bideo zinta entzun-ikusi eta gero, hutsuneak bete beharko dituzte. Bukatutakoan zuzendu.

## Testua

(...)

– Ez dut inoiz eskolan azterketa batera ere huts egin! sekula ez!
Orain Koldo nazkagarri horrengatik...
– Lehendik ere abisatuta egon zara horrekin kontuz ibiltzeko...
– Gainera noizbait izan behar zuen lehenengoa, ez?
– Baina hori ez da kontua... gauza bat da norberak huts egitea, baina beste batengatik izatea...
– Baina hala ere aukeran, hobe orain izatea, kurtso hasieran esan nahi dut...
– Bai, baina apunteak putzuan... bat egon behar munduan eta hori nire aurrean suertatu behar...
– Baina, Maddalen, Koldo honek telenobela bateko pertsonaia ematen du...
– Telenobelakoa?

– Bai, galaia, elegantea, jateko modukoa, ez duzu inoiz horrelakorik aurkituko, lanak, gainera, berriro egingo dituzu. Koldo bezalakorik Madddalen...

– Maddalen, Mirenek arrazoia dauka, ez dago Koldo bezalakorik... Bueno Kuban edo bilatzen ez baduzu...

– Bai gainera zuek arpa jo, ezta? Ni serio ari naiz.

– Maddalen, gu ere serio ari gara, badakigu gauza horiekin ezin gaitezkeela jolasean ibili.

– Ba, harrapatzen dudanean txiki- txiki egingo dut, ez diot sekula barkatuko egin didana eta entzungo dizkit entzun beharrekoak.

– Jakina entzungo dizkizula...

– Eta nik sinestu, aurrean jartzen zaizunean zu ixil-ixilik eta oilo bustia bezala...

– Oilo bustia ni, ez horixe!

– Anix, ez duzu zure arreba ezagutzen, e?

– Ez dudala nire arreba ezagutzen, ez ezagutu gabe, aspaldian bizi naiz berarekin, e? Eta esan dituen guztiak eta gehiago esango dizkio Koldori ikusi orduko!

– Jakina esango dizkiodala!

– Lehenbailehen joan behar dugu Koldo jakinaren gainean jartzera, horrela Maddalen ikusi orduko, ospa egingo du.

(...)

**4.B** Jarduera

## Aholkutxo bat

Idazmena

### Edukiak

• **Hizkuntz trebetasuna.** Idazmena.

• **Testua.** Eskutitz informala.

• **Kontestua.**
 – Idazketaren xedea: aholkua ematea.
 – Komunikazio-kanala: eskutitza.
 – Erabilera-esparrua: aisialdikoa.
 – Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.

• **Adierazpide linguistikoa.**
 – Adjetiboak: kualifikatiboak
 atzizki adjetibatzaileak: -garri, -tar, -dun, -ti, -tsu
 – Konparaketa: graduazioa
 – Aditza: · Denbora: orain eta lehenaldia
 · Aspektua: ez-burutu puntukaria, ez-burutua, burutua
 – Dimentsio-adierazleak: aurre, atze, azpi, gain, barru, ondoan, goian, behean, ezkerrean, eskuinean...

– Objetuen xedea eta izaria adierazteko: • Xedea: -t(z) eko
• Erlatiboa: -e(n)
– Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, aurretik,..

## Prozedura

Bideoa entzun-ikusi, ulertu eta gero, ikasleek bakarka, eskutitz bat idatziz aholku txiki bat emango diote Maddaleni. Bukatutakoan ongi legoke hiruko taldean jarrita, bakoitzak idatzitakoa elkarri pasatu, besteena irakurri eta aholkuaren zergatiak (batez ere desberdinak badira) komentatzea.

# Arian, arian edozer zulatzen da

ZER IKASI DUT?

## Helburua

Ikasgai honetan ikasi duena burura ekarri eta honetaz konturatzea.

## Prozedura

Ikaslearen orrian duten fitxa bakarka bete eta gero, hirunaka jarri eta hiru fitxak konparatuko dituzte (horrela galduago dabilenari falta zaiona emango zaio).

# 2
# Garraiobideak eta komunikazioa




**Ttipi-ttapa ttipi-ttapa baina gelditu gabe ailegatu zen**

**1.A**
**Jarduera**

# Denok trenera!!

**NOZIOAK**



Entzumena

## Edukiak

• **Hizkuntz trebetasuna.** Entzumena.

• **Testua.** Eguneroko egoerak

• **Kontestua.**
- Komunikazioaren xedea: entzundakoarekin hipotesiak egitea.
- Komunikazio-era: interakziozkoa: ikaslearen ezagutza-mailara egokituz (abiadura, ahoskera, zaratarik ez...).
- Komunikazio-kanala: bitartekoak medio (kaseta).
- Gaia: entzuleentzat gai ezaguna.
- Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- Eginkizunak: entzungo dituzten egoerak garraiobideekin identifikatzea.

• **Adierazpide linguistikoak.**
- Alderdi fonologikoa:
  - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
  - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
  - il>[ll]
  - in>[ñ]
  - Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
    ez dira >[eztira]
- Alderdi morfosintaktikoa:
  - Izen arruntak: eremu semantikoari dagozkionak
  - Adjetibo kualifikatiboak
  - Aditza: indikatibo oraina
    Nor
    Nor-nork (nor 3.)
    Nor-nori-nork
  - Baiezko eta ezezko perpausak
  - Perpaus elkartua:
    Emendiozkoa: eta
    Hautakaria: edo
    Aurkaritzakoa: baina

## Prozedura

Ariketa honen helburua bikoitza da: gaian sartzea aurrena, nolabaiteko berotze ariketa gisa, eta garraiobideen inguruko lexikoa ikastea, bestea. Ikasleek eguneroko bizimoduan gerta daitezkeen hamar egoera entzundakoan, gurutze batez markatu beharko dute zer garraiobiderekin dauden lotuak aipatutako egoerak.

## Ikasleek entzungo dutena:

**A.** – Aizu, barkatu, zein trenbidetatik aterako da Bilborako talgoa, ordu biak eta laurdenetakoa?

**B.** • Bai?

– Aizu, furgoneta bat alokatu nahiko nuke asteburu honetarako.

**C.** • Hara! Udaltzaina. Zer nahi ote du honek orain?

– Egun on! Gidatzeko karneta, mesedez?

**D.** –Komandanteak berehala lurreratuko garela dio. Arren eskatzen dizuegu ez erretzeko, mahaitxoa itxita dagoen begiratzeko eta eserlekuaren bizkarraldea zuzen mantentzeko. Eskerrik asko.

**E.** – Bartzelonatik datorren espresoa, gaueko 12ak laurden gutxitakoa, 15 minutuko atzerapenez ailegatuko da.

**F.** – Arrankatu eta gero, enbragea zapaldu eta sartu lehenengoa. Gero azeleradorea zapaldu eta enbragea emeki-emeki askatu.

**G.** • Egun on!

– Egun on, aurreko astean Pariserako AX 645 hegaldirako erreserba egin nuen. Konfirmatu nahiko nuke.

• Bai, noren izenean dago erreserba hori?

– Nik neuk, Maria Gomezek, egin nuen.

• Itxaron momentu bat, mesedez. (...) Bai, konfirmatuta dago. Nahi duzunean etor zaitez txartela hartzera.

– Konforme, eskerrik asko.

• Bai, agur.

**H.** – 17,40etan Gijonetik abiatu den espresoa momentu batetik bestera ailegatuko da bere destinora.

**I.** – Eutsi goiari! Oso gutxi falta zaizu helmugara heltzeko.

**J.** – Tramankulu honek ez dakit zer duen. Lehengoan aldapan gora nindoala, katea atera zitzaion. Eskerrak ez nintzen erori. Begiratu bat emango diozu ea konpontzen duzun?

**1.B** Jarduera

# Irunera doan trena irtetera doa. 1. trenbidean dago.

## Helburua

Garraiobideekin zerikusia duen lexikoa ikustea.

## Prozedura

Aurrekoan baino ulermen maila zorrotzagoa eskatzen zaie. Hemen egoerak ulertu ondoren, mezu horien asmo komunikatiboa asmatu behar dute. Zein da mezu bakoitzaren funtzioa? Entzungaia hasi eta bukatu arte jar daiteke edo etenaldiak eginez. Polita litzateke, ariketa bukatu ondoren, ikasleek mezu horien asmo komunikatiboak identifikatzeko erabili dituzten estrategiak esatea, hau da, zertaz baliatu diren ulertzeko.

**Hona hemen soluzioak.**

**A**

- ☒ Talgoa non aurkitzen ahal den galdetzea.
- ☐ Talgoa ailegatu den ala ez galdetzea.
- ☐ Talgora igotzeko txartela erostea.

**B**

- ☐ Kotxe bat alokatzeko prezioa galdetzea.
- ☒ Kotxe bat alokatzeko intentzioa agertzea.
- ☐ Alokatu duen kotxea non dagoen galdetzea.

**C**

- ☐ Poliziak gidari bati isuna jartzea.
- ☒ Poliziak gidari bati karneta eskatzea.
- ☐ Poliziak alkoholemia-kontrola egitea.

**D**

- ☐ Hegazkinerako txartelak erostea.
- ☐ Hegaldia bertan behera geratu dela iragartzea.
- ☒ Hegazkina lurreratzean instrukzioak ematea.

**E**

- ☒ Trenaren atzerapenaren berri ematea.
- ☐ Trena garaiz iritsiko dela jakinaraztea.
- ☐ Treneko bagoia aurkitzeko informazioa ematea.

**F**

- ☐ Norbaitek taxi bat nahi duela adieraztea.
- ☐ Norbaitek gasolina erostea.
- ☒ Kotxea gidatzen ikasteko instrukzioak ematea.

**G**

- ☐ Hegaldi baterako erreserba anulatzea.
- ☒ Hegaldi baterako erreserba konfirmatzea.
- ☐ Norbaitek galdu duen maleta erreklamatzea.

**H**

- ☒ Trenaren etorrera iragartzea.
- ☐ Trenak geldialdi motza egingo duela iragartzea.
- ☐ Trena berehala aterako dela informatzea.

**I**

- ☐ Txirrindulari bati zigorra jartzea.
- ☐ Txirrindulari batek ura eskatzea.
- ☒ Txirrindulari bati animoa ematea.

**J**

- ☐ Mekanikoari errieta egitea.
- ☒ Mekanikoari txirrindula konpontzeko instrukzioak ematea.
- ☐ Mekanikoari faktura ordaintzea.

**2.AB** Jarduera

# Donostiarako autobusen ordutegia, mesedez?



Entzumena

## Edukia

Ikus 1.jarduera.

## Helburua

– Ordutegiaren inguruko lexikoaz jabetzea.
– Informazioa eskatzeko eta informazio gehiago lortzeko erabiltzen diren nozioei erreparatzea.

## Prozedura

Elkarrizketak astegunetarako informazioa eta asteburuetakoa dakartza. Jarri ikasleak binaka eta bati A fitxa eman eta besteari B fitxa. Bakoitzari esan behar zaio informazio osoa ez duela jaso behar, zati bat baizik (astegunetakoa edo asteburuetakoa). Irakasleak esango dio zein jaso behar duen. Komeniko litzateke hasieran denek dena entzutea. Gero, zatika jartzen ahal zaie. Ariketa bukatzeko, galderen bidez bestearen informazioa lortu behar dute. Egindakoan azken aldiz entzungo dute zerbait zuzendu behar bada, zuzentzeko.

**Elkarrizketa**

• Bai, “Beti berandu” autobusak?
– Egun on! aizu, Donostiarako autobusen ordutegia jakin nahi nuke, mesedez.

• Zer zerbitzu nahi duzu: zuzenean autopistan zehar joaten dena ala herrietatik pasatzen dena?
– Ahalik eta azkarren ailegatzen dena, mesedez.

• Orduan autopistakoa hartu behar duzu. Astegunetan lehendabizikoa goizeko 8,15etan ateratzen da. Gero hiru ordutatik hiru ordutara, 11,15etan, 14,15etan, 17,15etan eta 20,15etan. Eta asteburuetan lehenengoa 9,00etan ateratzen da eta lau ordutatik behin izaten da, 13,00etan bigarrena, 17,00etan hirugarrena eta 21,00etan azkena
– Ederki, a! beste kontu bat. Joan-etorriko txartela erosiz gero, merkeago ateratzen da?

• Bai, noski. Joanekoak 6 euro balio du eta joan-etorrikoak 10,85 euro.
– Konforme. Eskerrik asko.

• Ez horregatik. Agur.

## N.A “Beti berandu” autobusak, bai esan?

NOZIOAK

### Helburua

Landu nahi diren nozioen berri ematea:

1. Informazio jakin bat eskatzea (ikasleak ohartarazi behar ditugu zerbait eskatzeko kortesia-formulak erabili behar direla)
2. Informazio gehiago lortzea.

### Prozedura

Kontsultarako eduki dezatela, hurrengo jardueran erabili beharko dute eta.

## N.B Noizero?

NOZIOAK

### Helburua

Landu nahi den nozioaren berri ematea: maiztasuna.

### Prozedura

Kontsultarako eduki dezatela, hurrengo jardueran erabili beharko dute eta.

3. Jarduera

Jo dezagun...

NOZIOAK



Mintzamena

## Edukiak

• **Hizkuntz trebetasuna.** Mintzamena.

• **Testua.** Elkarrizketa.

• **Kontestua.**
- – Komunikazioaren xedea: ikusitako nozioak (informazioa eskatzea eta maiztasuna) lantzea.
- – Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa
- – Komunikazio-era: galde-erantzun laburrak.
- – Komunikazio-kanala: aurrez aurre.
- – Komunikazio-egoera: benetakoa.
- – Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
- – Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.

• **Adierazpide linguistikoak.**
- – Alderdi fonologikoa:
  - – /Z/ /S/ /X/ bereiztea
  - – /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
  - – il>[ll]
  - – in>[ñ]
  - – Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]<br>ez dira >[eztira]
- – Alderdi morfosintaktikoa:
  - – Izen arruntak: eremu semantikoari dagozkionak (lexiko arrunta, orduak)
  - – Adjetibo kualifikatiboak
  - – Aditza: indikatibo oraina eta lehenaldia<br>Nor<br>Nor-nork (nor 3.)<br>Nor-nori-nork
  - – Baiezko eta ezezko perpausak
  - – Perpaus elkartua:<br>Emendiozkoa: eta<br>Hautakaria: edo<br>Aurkaritzakoa: baina

## Prozedura

**A.-** Ikasleak binaka jarri eta gero, lehenengo egoeran dauden rolak banatu behar dituzte. Bukatutakoan, hartu ez duten rolari ekingo diote. Bigarren egoerarekin gauza bera egingo dute.

**B.-** Binaka daudela, hor dauden galderei erantzuna eman diezaietela.

**4. Jarduera**

## Nik motorra nahiago



Mintzamena

### Edukina

– Alderdi morfosintaktikoa:
  - – Izen arruntak: eremu semantikoari dagozkionak (garraiobideen ingurukoa)
  - – Adjetibo kualifikatiboak
  - – Aditza: indikatibo oraina eta lehenaldia
    - Nor
    - Nor-nork (nor 3.)
    - Nor-nori-nork
  - – Baiezko eta ezezko perpausak
  - – Perpaus elkartua:
    - Emendiozkoa: eta
    - Hautakaria: edo
    - Aurkaritzakoa: baina
  - – Menpekoak: nik uste dut / niri iruditzen zait... -(e)la.

### Prozedura

Binaka jarrita, hitz egin ahala, abantailak eta desabantailak apuntatuko dituzte. Gero klase osoaren aurrean talde bakoitzak egin duenaren berri eman beharko du. Irakasleak arbelean ikasleek aipatzen dituzten abantailak eta desabantailak idatziko ditu.

**5. Jarduera**

## Ba, niri behin zera gertatu zitzaidan...



Irakurmena

### Edukiak

• **Hizkuntz trebetasuna.** Irakurmena.

• **Testua.** Deskribapena eta narrazioa.

• **Irakurketa-mota.** Informazio orokorra antzemateko.

• **Kontestua.**
- – Irakurketaren xedea: informazio orokorra jasotzea eta irakurzaletasuna piztea.
- – Komunikazio-kanala: egunkari bateko artikuluak.
- – Komunikazio-era: irakurgai errealak.
- – Gaia: ezaguna

• **Adierazpide linguistikoa.**
- Alderdi morfosintaktikoa:
  - Izen arruntak
  - Adjetibo kualifikatiboak
  - Aditza: indikatibo oraina eta lehenaldia
    - Nor
    - Nor-nork (nor 3.)
    - Nor-nori-nork
  - Baiezko eta ezezko perpausak
  - Perpaus elkartua:
    - Emendiozkoa: eta
    - Hautakaria: edo
    - Aurkaritzakoa: baina
  - Menpekoak:
    - Konpletiboak: -(e)la.
    - Zehar galderak: -(e)n
    - Denborazkoak: -(e)nean

## Prozedura

Ikasle bakoitzak bakarka irakurriko du Jon Arretxeri egindako elkarrizketa. Behin bakarrik irakurtzea ez da nahikoa izango, beraz gehiagotan irakurri beharko dute. Hor datozen hitz eta egitura guztiak ez dituzte ulertuko, baina ariketa honen helburua irakurzaletasuna piztea denez, ez du inporta. Bukaeran ulermen galdera orokor batzuk ageri dira, irakurri dutena pixka bat kontrolatzeko. Erantzun ondoren, binaka jarriko dira erantzunak konparatzeko.

Hurrengo orrialdean Arretxek idatzitako bi bidai nobelaren laburpenak daude. Bata da aurreko jardueran atera den liburua (“Lurraren taupadak”) eta bestea “Tubabu”. Bi liburu hauen laburpenak bere horretan eman ditugu, ezer aldatu gabe. Dena ez dute zertan ulerturik, beraz, irakasleak hor dagoenaren berri emango die.

6. Jarduera

# فى اللطيفة الشرقية فمنها الرياح



Irakurmena

## Edukiak

• **Hizkuntz trebetasuna.** Irakurmena.

• **Testua.** Narrazioa.

• **Irakurketa-mota.** Informazio orokorra eta zehatza.

• **Kontestua.**
  – Irakurketaren xedea: testu antolatzaileak eta lokailuak ezagutaraztea.
  – Komunikazio-kanala: egunkari bateko erreportaje laburra.
  – Komunikazio-era: irakurgai erreala.
  – Gaia: historiarekin lotura duena.

• **Adierazpide linguistikoa.**
  – Alderdi morfosintaktikoa:
    – Izen arruntak: heriotzarekin zerikusia dutenak (hilobia, lurperatu, gorpua, hilkutxa)
    – Adjetibo kualifikatiboak
    – Denbora erreferentziak (k.a. XVI. mendean..., 1922. urtera arte...)
    – Aditza: indikatibo oraina eta lehenaldia
      Nor
      Nor-nork (nor 3.)
      Nor-nori-nork
    – Baiezko eta ezezko perpausak
    – Perpaus elkartua:
      Emendiozkoa: eta
      Hautakaria: edo
      Aurkaritzakoa: baina
    – Menpekoak:
      Konpletiboak: -(e)la.
      Zehar galderak: -(e)n
      Denborazkoak: -(e)nean
      (...)

## Prozedura

Testua bakarka irakurri nahi adina aldiz, eta lokailu egokiak aukeratu behar dituzte. Zuzentzerakoan, irakasleak azaldu behar ditu argi geratu ez diren ideiak.

### Soluzioak

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | a) horregatik | b) hain zuzen ere | c) dena den |
| 2 | a) honen ondorioz | b) berriz | c) bestela |
| 3 | a) ez hori bakarrik | b) agian | c) esaterako |
| 4 | a) zorionez | b) ere | c) berriz |
| 5 | a) ere bai | b) hau da | c) ordea |

7. Jarduera

## Begiak itxi eta... lekutan zaude



Entzumena

### Edukiak

• **Hizkuntz trebetasuna.** Entzumena.

• **Testua.** Telebistatik grabatutako dokumentalak.

• **Kontestua.**
- Komunikazioaren xedea: euskaraz entzutea, belarria egitea. Hau aprobetxatuz, informazio orokorra jasotzea.
- Komunikazio-kanala: bitartekoak medio (bideoa).
- Gaia: entzuleentzat gai ezagun samarra.
- Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- Eginkizunak: dokumentaletan jorratu diren gaiak identifikatzea.

• **Adierazpide linguistikoak.**
- Alderdi fonologikoa:
  - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
  - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
  - il>[ll]
  - in>[ñ]
  - Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
    ez dira >[eztira]

– Alderdi morfosintaktikoa:
  – Izen arruntak: eremu semantikoari dagozkionak
  – Adjetibo kualifikatiboak
  – Aditza: indikatibo oraina eta lehenaldia
    Nor
    Nor-nork (nor 3.)
    Nor-nori-nork
  – Baiezko eta ezezko perpausak
  – Perpaus elkartua.
    Emendiozkoa: eta
    Hautakaria: edo
    Aurkaritzakoa: baina
  – Menpekoak.
    Konpletiboak: -(e)la.
    Zehar galderak: -(e)n
    Denborazkoak: -(e)nean

## Prozedura

Bi dokumental dira guztira. Aurrena lehendabizikoa (Kaledonia Berrikoa) jarri, bitan edo hirutan, eta launaka jarrita, dokumental horretan aipatzen diren gaiak (geografia...) jar ditzatela zerrendan. Bigarren dokumentalarekin gauza bera egingo da. Azkenik klase osoaren aurrean talde bakoitzak bere zerrenda botako du eta talde guztien ekarpenekin zerrenda bakarra osatuko du irakasleak arbelean. Irakasleak ariketari etekin gehiago atera nahi badio, mintzamena lantzeko erabil dezake.

**8. Jarduera**

# Ba, niri behin ederra gertatu zitzaidan...



Idazmena

## Edukiak

• **Hizkuntz trebetasuna.** Idazmena.

• **Testua.** Narrazioa.

• **Kontestua.**
  – Idazketaren xedea: bidaiaren batean noizbait gertatutakoak gogora ekartzea.
  – Igorle-hartzaile harremana: lagun-lagun.
  – Komunikazio-kanala: eskuz bat-batean idatziak.
  – Erabilera-esparrua: lagunartekoa.
  – Gaia: ezaguna, mundu ezagutzatik hurbilekoa.

• **Adierazpide linguistikoa.**
  – Eskura dituzten baliabide linguistiko guztiak. Lehenaldiko aditzak batez ere.

## Prozedura

Idazlanak bildu eta gero, interesgarrienak klaseko horman jarri.

9.
Jarduera

## Etxera, beste fitxa bat jan dizut eta



Mintzamena

## Edukiak

• **Hizkuntz trebetasuna:** mintzamena

• **Testua:** jolasa.

• **Kontestua:**
- – Komunikazioaren xedea: zerbaitetan ari direla, euskara erabiltzea. Kasu honetan partxisean aritzeko nozio beharrezkoak ikas ditzatela.
- – Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa.
- – Komunikazio-era: galde-erantzun laburrak.
- – Komunikazio-kanala: aurrez aurre.
- – Komunikazio-egoera: benetakoa.
- – Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
- – Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.

• **Adierazpide linguistikoak.**
- – Alderdi fonologikoa:
  - – /Z/ /S/ /X/ bereiztea
  - – /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
  - – il>[ll]
  - – in>[ñ]
  - – Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]<br>ez dira >[eztira]
- – Alderdi morfosintaktikoa:
  - – Izen arruntak: eremu semantikoari dagozkionak (partxisean aritzeko behar direnak)
  - – Adjetibo kualifikatiboak
  - – Aditza: indikatibo oraina<br>Nor<br>Nor-nork (nor 3.)<br>Nor-nori-nork
  - – Baiezko eta ezezko perpausak.
  - – Perpaus elkartua:<br>Emendiozkoa: eta<br>Hautakaria: edo<br>Aurkaritzakoa: baina
  - – Menpekoak:<br>Erlatibozkoak: -(e)n

## Prozedura

Partxisean ibiliko dira jarduera honetan. Aurrena landu eta eman partxisean aritzeko behar diren nozioak (irakasleoi gehiago bururatzen bazaizkizue, aurrera), ikasleak jolasean ari direla erabiltzeko.

Kontua da bidaia egin baino lehen, maleta prestatu behar dela. Partxisean dituzte maletan sartu behar diren zenbait objektu. Ikaslea objektuak dauden kasiletan eroriz gero, erlatiboak erabiliz, objektu horiek zertarako balio duten esan behar du, fitxa gainean jarri baino lehen. Adibidez, “kantinplora”n erortzera, esan beharko du “ura eramateko eta edateko balio duena / balio duen gauza”, esate baterako. Esaldia ongi esan behar du aurrera segituko badu. Gaizki esaten badu, txanda hurrengoari emango zaio. Gainerako arauak partxis arrunt batek dituenak dira.

Jolasean hasi baino lehen, komenigarria izango litzateke erlatibozko esaldiak lantzea.

**10.A**
**Jarduera**

# Kaixo, zer moduz?



Mintzamena

## Edukiak

• **Hizkuntz trebetasuna.** Mintzamena.

• **Testua.** Elkarrizketa.

• **Kontestua.**
- Komunikazioaren xedea: informazioa elkarri ematea.
- Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa
- Komunikazio-era: hasieran erantzun laburrak, geroago zabaltzen joango direnak.
- Komunikazio-kanala: aurrez aurre.
- Komunikazio-egoera: benetako informazio trukaketa.
- Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
- Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.

• **Adierazpide linguistikoak.**
- Alderdi morfosintaktikoa: eskura dituzten baliabide linguistiko guztiak.

## Prozedura

Taldeka (launaka edo) hitz egin ondoren, talde bakoitzak labur ditzala klasekoen aurrean atera diren iritziak, pasadizoak...

**10.B Jarduera**

# Kaixo, zer moduz?



Irakurmena



Entzumena

## Edukiak

• **Hizkuntz trebetasuna.** Irakurmena.

• **Testua.** Narrazioa: postala

• **Irakurketa-mota.** Informazio orokorra eta zehatza.

• **Kontestua.**
  – Irakurketaren xedea: testu-era honek dituen ezaugarriak antzematea.
  – Komunikazio-kanala: postala.
  – Komunikazio-era: irakurgai erreala.
  – Gaia: ezaguna.

• **Adierazpide linguistikoa.**
  – Alderdi morfosintaktikoa:
    – Izen arruntak
    – Adjetibo kualifikatiboak
    – Denbora erreferentziak (atzo, maiatzaren 15ean ...)
    – Aditza: indikatibo oraina eta lehenaldia
      Nor
      Nor-nork (nor 3.)
      Nor-nori-nork
    – Baiezko eta ezezko perpausak
    – Perpaus elkartua:
      Emendiozkoa: eta
      Hautakaria: edo
      Aurkaritzakoa: baina
    – Menpekoak:
      Konpletiboak: -(e)la, -t(z)eko
      Zehar galderak: -(e)n

## Prozedura

Testu-motari dagokionez, postala izango dute langai. Jakin behar dute bere ezaugarririk nabarmenenak informaltasun maila eta laburtasuna direla. Aurrena adibide bat emango zaie (Pisako postala). Gero, testu ulerterrazak direnez, postalaz baliatuko gara zehar estiloa ezagutarazten joateko. Horretarako hurrengo entzungaian postalean irakurri dutena adituko dute, baina beste hirugarren pertsonaren ahotan. Azkenik, ikasleek somatu dituzten aldaketak jarriko dituzte (-(e)la, -(e)n, -t(z)eko). Gero eman entzungaiaren transkripzioa, hori aurrean dutela zehar estiloa lasaiago ikasteko.

**Hau da ikasleek entzungo dutena:**

– Eeeeepa!! heldu naiz. Amona, Mikel eta besteak non dira?

• Ez dakit, ni ailegatu naizenerako, joanak ziren.

– Ezetz asmatu zer ekarri dudan?

• Kiniela saritu bat.

– Baita zera ere! Karlos eta Maikaren postal bat.

• Bazen ordua! Bi aste egin dira ezkondu eta hor zehar dabiltzala. Ia kezkatzen hasia nintzen. Eta zer diote?

– Ea zer moduz gauden galdetzen dute eta ea amonari katarroa sendatu zaion. Eeeeee Italian oso ondo daudela eta udaberrian zoragarria dela diote. A! Hara! lehengo egunean Pisara joan zirela eta guretzat opari batzuk erosi zituztela jartzen du.

• Nola? guretzako opari batzuk erosi dituztela? Auskalo zer erosi izango diguten, ondo zuhurrak dira, gero!

– Ea Peruk lanik aurkitu ote duen galdetzen dute.

• Jakingo balute Peruk etsi-etsita apaiz joatea pentsatu duela...

– Karlosen landareak ureztatzeko diote eta Mikeli ondo portatzeko esateko. Onena bukatu zaie, maiatzaren 15ean itzuliko direla diote.

• Beno, ez dute ezer askorik esaten.

– Zer esan behar zuten, ba?

• Ezkonbidaian daudenez.... hombre, nik zerbait erromantikoagoa espero nuen.

– Erromantikoagoa? zu bai erromantiko galanta egina zudela. Tira, tira, berba-lapikoa halakoa!

**10.C** Jarduera

## Kaixo, zer moduz?

Idazmena

## Edukiak

• **Hizkuntz trebetasuna.** Idazmena.

• **Testua.** Narrazioa: postala

• **Kontestua.**

– Idazketaren xedea: postala idaztea.
– Igorle-hartzaile harremana: lagun-lagun.
– Komunikazio-kanala: eskuz bat-batean idatziak.
– Erabilera-esparrua: lagunartekoa.
– Gaia: ezaguna, mundu ezagutzatik hurbilekoa.

• **Adierazpide linguistikoa.**

– Eskura dituzten baliabide linguistiko guztiak. Lehenaldiko eta orainaldiko aditzak batez ere.

## Prozedura

Ikasle bakoitzak jarriko du bere izena papertxo batean. Irakasleak guztiak jaso ondoren, beraiena ez den papertxo bana emango die ikasleei. Bakoitzak tokatu zaionari idatziko dio postal bat. Gero, launakako taldean jarriko dira eta taldeko bakoitzak jaso duen postala besteei irakurriko die, betiere zehar estiloan, entzungaian aditu duten modura.

# Arian, arian, edozer zulatzen da

ZER IKASI DUT?

## Helburua

Gaur egungo metodologiaren arabera, ardatz nagusia ikaslea da, bera baita ikas-prozesuaren partaide eta aktore nagusia. Ikaslea bere ikas-prozesuaz jabetzen den heinean, zergatik eta zertarako ikasten duen, nora iritsi nahi duen... jakitun den heinean, arrakastatsuagoa izango da bere ikas-prozesua. Ikaslearen autonomia bultzatzera, hain zuzen ere, dator azkeneko atal hau.

## Prozedura

Ikastunitatea bukatu ondoren, ikasleek, binaka edo hirunaka jarrita, beteko dute azken fitxa. Gero, besteen aurrean bikote bakoitzak eman dezake ikasi duenaren berri; hortaz, irakasleak gogoetarako beta ematen duen ariketa hau tresnatzat har dezake ikasleak adierazpide linguistiko zein pragmatikoak bereganatu dituen ala ez ikusteko.

# 3
# Pertsona



**Ni zu baino zuhurragoa naiz, beraz zu ni...**

**1.A** Jarduera

# Zer goxoa den Kontxi!



Entzumena

## Edukiak

• **Hizkuntz trebetasuna.** Entzumena.

• **Testua.** Elkarrizketa. Bi pertsonaren artekoa.

• **Kontestua.**
– Komunikazioaren xedea: pertsona batzuen deskribapenak egitea.
– Komunikazio-kanala: kaseta.
– Komunikazio-egoera: ahalik eta benetakoena.
– Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
– Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
– Eginkizunak: 1.- Gaian sartzea.
2.- Pertsonen deskribapenak egiteko behar diren baliabide sintaktikoez zein lexikoez ohartaraztea.
3.- Hizkuntza-erregistroez (kasu honetan informalaz) ohartaraztea.

• **Adierazpide linguistikoak.**
– Alderdi fonologikoa:
– /Z/ /S/ /X/ bereiztea
– /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
– il>[ll]
– in>[ñ]
– Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[eztira]
– Alderdi morfosintaktikoa:
– Determinatzaileak: mugatuak (politagoa) eta mugagabeak (politago).
– Adjetibo kualifikatiboak. Graduatzaileak: oso, -ago(a), -egi(a), samarra.
– Aditza: iragana
Nor
Nor-nori
Nor-nork
Nor-nori-nork
– Baiezko eta ezezko perpausak.
– Perpaus elkartua:
Emendiozkoa: eta
Hautakaria: edo
Aurkaritzakoa: baina
– Txertakuntza:
Erlatibozkoak: (erreferenteduna, erreferente gabea).

## Prozedura

1B. jarduera honekin lotuta dagoenez, elkarrizketa bi aldiz entzun dezatela transkripziorik irakurri gabe. Gero, 1B. jarduera (entzunaren ulermena) egina eta zuzendua dagoenean, beste behin entzun dezakete, orain bai, transkripzioa aurrean dutela.

**Ikasleek entzungo dutena:**

## Entzungaia

Ring, ring, ring...

Mikel: Bai, esan?

